




# NOIZDANIKOA DUGU GIZONA ?



Arrunki

uste zen, Australopithekoa zela gizonaren lehena-gokoa. Aitaitona, esaterako. Gizon antzeko ta tximu antzeko, bien bitarteko gizaki bat izan zen Australopithekoa. Tximu-kristau polita, gure arbasoa.

Leakeyk beste teoria bat agertu du. Gizonaren aitaso-arbasoa soil **Homo** izena emango diogun beste bat izan bide zen seguruenik. Eta **Homo** hau Pekin-gizakiaren senidetsu zatekeen, itxura duenez. Beraz, kontu hau egin genezake: **Homo** eta Australopithekoa, jatorri ber-batekoak ziren, alde banatarra desarroilatua ordea. Australopithekoa duela milioi bat urte suntsitu egin zen, ez dakigula zergatik. Leakeyk uste duenez, bi milioi urtez Australopithekoa ta **Homo** elkarren parean bizi izanak genituzke. Elkarren gisakoak, giza itxurakoak, denbora berekoak (elkarren hauzoko, denboraz nahiz tankeraz, bi milioi urtez). Bi gizakera ezberdin, halare. Duela milioi bat urte inguru, Australopithekoa lur-raren gaintik galdu zen, segimenik utzi gabe.

**Homo**-k, aldiz, bizirik eta eboluzionatuaz, aldatuaz, segitu zuen bere bidean.

Antzeko gizakiok elkarren parean, baina ezberdin izaki, esistitzeak, esplika lezake, agian, zergatik pregizakien eboluzio katean forma guzuen kate eraztunak aurkitzea inposible den. Zergatik daduzkagun elkarrekin eratzen ez diren pregizakeraren formak. Ez direlako eboluzio batetako formak, izaki diferente birenak baizik. Beraz, ez zegoen kate bat bilatu da. Katea **Homo**-ren lerroan bakarrik bilatu beharko da aurrerantzean, hortakoz, Australopithekoarena aldameneko desarroiloztat joaz.

Richard Leakeyren idorokundeak diferenteak dira. Lehena, bi buru-hezur oso eta hezur iliako (koksak) bat, 2'5 edo 3 milioi inguru urtedunak, batik-bat. Hezurron inguruan sortu da espanturik eta haizerik. Ohi zen baino gutienez milioi bat urte lehenago hasten bait dute gizonaren historia. Gainera, ez da ikusten hezurrok **Homo sapiens**-en aurretiazko tankerekin inon elkar daitezkeenik. Aldameneko desarroiloa Leakeyren **Homo** hori ez ote da, Australopithekoa barik? Zazantzarik bada, beraz.

Dena dela, Leakeyk beste idorokunde bat ere egin du, eta Pekin-gizakiaren antz-antzekoa hura. Pekin-gizakia arraza mongolikoen aitzindaritzat jotzen ohi da. Milioi erdi bat urte eman ohi zaio. Leakeyk, ordea, antz-antzeko buru-hezur bat aurkitu du Kenian, nabariki radio kontrolatutako gutienez 1'5 milioi urte botatzen dituen. Esaten zen baino milioi urte gehiago. Eta Leakeyk ez du uste hain antzeko bi gizaki garai arras differentetan ibiliak izan daitezkeenik. Bateratsu ibili izan direla, pentsatu beharko litzateke. Pekin-gizakiari ere milioi urte ta erdi inguru aitortu beharko litzaioteke, hortakoz. Bestenaz, Leakeyren susmoak indartzera Johansonen idorokundeak etorri dira. Donald Johanson hau Clevelandeko Museo natur-historikoaren artez-kari da eta, Etiopian aurkitu duen hezur mordo batetatik, esku oso bat berreratu ahal izan du. Esku honek, berriz, baditu gutienez 3, seguruenik 3'5 milioi urte. Esku honen jabea tente zebilen, zutik. Hau da, es zebilen lau hankan, oinen eta hatz-koskorren gainean, tximu asko bezala. Gainera, esku honek tresnak prestatzeko gai dirudi, duen tankeragatik. Tente zebilen eta tresnak landu zitzakeen pregizakiak, hortakoz, duela 3'5 milioi urte?

Adan geroz eta zaharrago egiten ari zaigu. Poetak esan zuena: Aspaldi hartan/ mirakulu hura gertatu zen/ gizaldien harrigarri". Eta Adanek:

bere lur maitatu hartan barrena  
beste behin abiatuz  
bere aurrean  
mundu berri baten argia  
sumatu zuen;